

Edertasunaren bila

DARDARTI dabil kalezuloko farola, La Merced ikastetxeko atarian. Pertsona multzoak han eta hemen. Berez, nagusien hezkuntzarako ikastetxea dena, egun batez antzerkirako leku bilakatu da. Atea zabaldu dute eta bagoaz barrura banan-banan. Eszenatokiaren izkin batetik ari gara sartzen eta han dira jada, espazio eszenikoan, Oier, Asier, Ander zitarra jotzen, Idoia marrazten eta Jabi. Gu haiei begira, haiek guri so. Bakoi-tzak bere eserlekua hartu du.

Poza: Zergatik dantzatzeko dute bosniarrek? Metrokoadroka antzerki taldearen lanaren aurrerapena ikusi ahal izan genuen Bilbo Antzerki Dantza (BAD) jaialdiaren baitan. Azken hilabete honetako lanaren emaitza da, izan ere, antzezpen honetarako Bilboesenako Artistak Egoitzan programaren diru-laguntza jaso dute, eta Santutxun kokatuta dagoen Antzerki Baliabideetara-

ko gune honetan izan dira entseatzeko azken bi asteetan, Oier Guillan, Asier Sarasola, Ander Fernandez, Idoia Beratarbide eta Jabi Barandiaran.

Aurrerapen hau prestatzeko denbora eskasa izan badute ere, nahiko lan borobila aurkeztu ziguten. Antzerki joera ezberdinak biltzen dituzte, eta pozaren gaiari lotuta dagoenez, barrerako tartea ere ematen du. Aktoreek ez dute rol zehatzik, norbere buruarena ez bada, baina erabat teatrala da lana, agian bere hasierako urratsen biluzlasunagatik. Ikusteke dago datorren urtean estreinatu nahi duten antzeulanaren azken emaitza.

Work in process hau erakustearen xedeetako bat, publikoarekin egon daitezkeen hartu-emanak bideratzea da; iritziak jasotzeko egiten da. Antzeulanaren entsegu orokor modukoa dugu, baina publikoa

aurrean dela. Izan ere publikoak, ezinbestean publikoak, beste dimentsio bat ematen baitio taulartzeko denari. Beraz, antzezpena bukatu eta aurrez aurre jarri ginen, publikoa eta aktoreak. Orduan jakin genuen azken hilabeteen Bilboesenan inprobizazioak lantzen aritu direla, poesiatik heltzen direla antzerkira, eta ez dutela euren burua aktoretzat hartzen, ez behintzat ohiko aktoretzat...

“Edertasuna bilatzen dugu, eta bilaketan, edertasuna ikusteko gai diren begiak badituzu, poza ematen du horrek, edertasuna bilatzea eta aurkitzea”. Izenburua, Oier Guillanek bosniar lagun talde batekin egindako afari batean sortu zen, “euren poza ikusi nuen une batez, eta ederra iruditu zitzaidan. Neurri batean, denok gara bosniarrek”. ■



EGIZUHARPIDETZA EGIOZUHARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 145 € / Ipar Euskal Herrian 176 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonoa

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

TOLESTU

ZELOPARRERA
HEMEN HAN

ERANTZUN KOMERTZIALA
Balmien zkoa. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)